

I. ERANSKINA

ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA EGITEKO TXANTILLOIA - ANEXO I

PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA ANUAL DE ÁREA O MATERIA

2016-17 Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa *Programación didáctica anual/de curso 2016-17*

ikastetxea: <i>centro:</i>	IES URIBE-KOSTA BHI	kodea: <i>código:</i>	015143
etapa: <i>etapa:</i>	DBH	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	3.
arloa/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	GEOGRAFIA ETA HISTORIA		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>materias integradas/ áreas</i>	GIZARTE ZIENTZIAK		
diziplina barruko oinarriko konpetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	e) <u>Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia.</u> f) <u>Arterako konpetentzia</u>		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	EBA ELGEZABAL - TXEMA EZENARRO	ikasturtea: <i>curso:</i>	2016/17

Zeharkako konpetentziak / *Competencias transversales:*

- **Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia**
Hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio digitala modu osagarrian erabiltzea, ganoraz eta egoki komunikatu ahal izateko egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan.
- **Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia**
Ikasteko eta lan egiteko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea, eta ikasitakoa mobilizatzea eta beste testuinguru eta egoera batzuetara eramatea, norberaren ikaskuntza modu autonomoan antolatzeke.
- **Elkarbizitzarako konpetentzia**
Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasunez parte hartzea, eta norberari aitortutako eskubideak eta betebeharrak besteri aitortzea, norberaren zein guztion ongirako.
- **Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia**
Ekimena izatea eta ekite-prozesua erabakitasunez eta eraginkortasunez kudeatzea testuinguru eta egoera pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan, ideiak ekintza bihurtzeko.
- **Izaten ikasteko konpetentzia**
Bizitzan zehar agertzen diren sentimendu, pentsamendu eta ekintza pertsonalez gogoeta egitea eta haiek sendotzea edo egokitzea, haien gaineko balorazioaren arabera, bere burua etengabe hobetuz pertsona osorik errealizatzeke.

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
<p>HELBURUAK: GEOGRAFIA ETA HISTORIA. ETAPAKO HELBURUAK. Hauek dira etapako helburuak Geografia eta Historia ikasgairako:</p> <p>1) Pertsona bakarrak eta konplexuak direla ohartzea, eta zer gaitasun eta muga dituzten jakitea. Orobat, ohartzea zer kultura-ezaugarri direla-eta diren euskal gizarteko kide, beste talde batzuetako kide izateko aukera eragotzi gabe. Horren helburua da nork bere nortasun zehaztua eta onartua izatea, gizartean modu aktiboan eta konpromisoz parte hartzeko.</p> <p>2) Ingurune fisikoaren bereizgarri diren oinarrizko elementuak ingurune hurbiletik abiatuz identifikatzea eta kokatzea zenbait eskalatan eta elementu horien elkarreaginei erreparatzea, ulertzeko gizakion bizitza nola baldintzatzen duten eta, aldi berean, gizakiak nola eraldatzen dituen. Horren helburua da gizakiaren ekintzak zer gizarte-arazo eta ingurumen-arazo sortzen dituen ikustea eta horretaz kontziente izatea.</p> <p>3) Identifikatzea zein izan diren Euskal Herriarentzat gertaera eta prozesu historiko garrantzitsuenak, direla tokikoak, direla esparru zabalagokoak, eta denboran eta espazioan kokatzea. Horren helburua da gizateriaren bilakaeraren ikuspegi propioa eta globala izatea eta aldaketak eragiteko gaitasunari buruzko kontzientzia kritikoa izatea.</p>	<p>1.1- Ea ezagutzen dituen ekonomiari buruzko oinarrizko kontzeptuak, nazioarteko ekonomiaren aldeak interpretatzeko.</p> <p>1.2- Ea deskribatzen duen ekonomiaren oinarrizko funtzionamendua.</p> <p>1.3- Ea ikasleei edo familiei zuzenean eragiten dieten zenbait gertaera edo arazo ekonomiko aztertzeko oinarrizko giltzarrien jabe den (inflazioa, bizimoduaren kostua, lan-merkatua, langabezia, enpleguaren ezegonkortasuna, emakumezkoen enplegua, kontsumoa...)</p> <p>1.4- Ea egungo gizarteetako ekonomia-jarduerak deskribatzen dituen.</p> <p>1.5- Ea ezagutzen dituen egungo ekonomia globalizatuaren elementuak eta ondorioak.</p> <p>2.1- Ea ezagutzen dituen nekazaritza-sistema nagusien ezaugarriak eta nekazaritzan aplikatzen diren industria teknika berriak.</p> <p>2.2- Ea ezagutu eta kokatzen dituen Euskadiko eta Espainiako nekazaritza-eremu nagusienak.</p> <p>2.3- Ea gai den ondorioztatzeko gaur egun lehen sektorerako Europar Batasunak erabakitako politikak nola eragiten duen.</p> <p>2.4- Ea gai den nekazaritzak gaur egun dituen arazo esanguratsuek eragindako egoera jakinak aztertzeko, eta bereziki, merkatu esparruan euskal eta espainiar nekazaritzaren egoera; eta ea irtenbiderik proposatzen duen.</p> <p>3.1- Ea gai den Euskadiko, Espainiako eta munduko industria-espazio nagusiak eta lehengaiak eta energia-iturriak ekoizten dituzten gune garrantzitsuenak kokatzeko.</p> <p>3.2- Ea antzematen dituen industria mota nagusiak eta haien ezaugarriak.</p> <p>3.3- Ea ezagutzen dituen Euskadikoegungo ekoizpen moduak, industria-paisaia berriak eta industriaren etorkizuna.</p> <p>3.4- Ea dakien kokatzen energia eta industria-ondasun nagusiak ekoizten dituzten zonaldeak.</p> <p>3.5- Ea gai den produktuak lortu, ekoizti eta banatzen direnetik kontsumitu bitarteko ekonomia-prozesuei buruzko hausnarketa egiteko, eta ea ezagutzen dituen ekoizpenaren eta kontsumoaren artean sortzen diren harreman-korronteak.</p>

4) Datu historikoak biltzea, zenbait irizpide erabiliz: denboran orientatzekoak (iragana, oraina eta etorkizuna); denbora-posizio erlatiboak (segidakoak, aldiberekoak, diakronia, sinkronia); iraupena (faktikoa; koiunturala; egiturazkoa; iraupen laburrekoa, ertainekoa edo luzekoa); denbora-neurriak (denbora-unitatea, denbora eta kronologia historikoa). Horren helburua da gizartearen bilakaera historikoa ordenatu eta sintetizatzea.

5) Ondare naturala, kulturala, linguistikoa, artistikoa, historikoa eta soziala, norberarena zein bestearena, aintzat hartu eta errespetatzea, eta norbanakoek zein herriek beren identitatea izateko duten eskubidetzat jotzea. Eta hura babestu, kontserbatu eta hobetzeak dakarren erantzukizuna onartzea, nork bere esparrutik gizateriaren garapenean laguntzeko, dela modu indibidualean dela modu kolektiboan.

6) Gizarte demokratikoez zer antolaketa eta funtzionamendu duten jakitea, eta haien oinarri diren oinarrizko balioak eta printzipioak zein diren jakitea. Eta giza eskubideak erreferente unibertsal moduan erabiltzea norberaren bizitzako eta gizarte-bizitzako ekintzei eta egoerei buruzko iritziak sortzeko. Orobat, eskubideak urratuta dituzten edo beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak ez dituzten herriekin, gizarte-taldeekin eta pertsonekin solidarioak izatea eta jarrera eta egoera baztertzailak eta bidegabeak salatzea. Horren helburua da gizarte demokratikoetan modu kontziente, arduratsu eta kritikoa parte hartzea.

7) Europar Batasunaren antolakuntza politikoaren eta erakundearen funtzionamenduaren berri izatea,

4.1- Ea dakien egungo ekonomian zerbitzuen sektoreko jarduerak etengabe garatzen eta nagusitzen ari direla, merkataritza guneak eta turismo guneak ugaritzen ari direla.

4.2- Ea kokatzen dituen Europako, Espainiako eta Euskadiko garraio eta komunikabide ardatz nagusiak.

4.3- Ea lotzen dituen hirugarren sektorearen garapena eta hirietako biztanle kopuruaren gorakada eta hirien hazkundera.

5.1- Ea errespetatzen dituen herritarren parte-hartzerako hainbat euskal eremuetako erakundeak; eta orobat Espainiakoak eta Europakoak ere.

5.2- Ea onartzen dituen zuzenbide-estatuetakoko elkarbizitzako arauak, eta estatu horiek zuzentzen dituzte oinarrizko printzipioak ezagutzen dituen.

5.3- Ea badakien zein diren herritarren oinarrizko eskubideak eta betebeharrak, eta ezaguera horiek eta ordezkatzeko-sistemaren printzipioak eguneroko bizimoduan aplikatzen dituen.

6.1- Ea honako hauek kokatzen dituen, nor bere mapa politikoan: Europako estatuak, Europa Batasunako estatuak, Espainiako autonomia erkidegoak eta probintziak.

6.2- Ea ezagutzen eta deskribatzen dituen Euskadiko lurralde-antolamendua eta estatu espainiarreko lurralde antolamendua arautzen duten erakundearen funtzioak, eta baita erakunde horiek Europar Batasunean nola hartzen duten parte ere.

7.1- Ea munduko mapa politiko batean bereizten dituen ikasitako eskualde multzo guztiak osatzen dituzten herrialdeak; halaber, ea nabarmentzen dituen mundu ordena berria osatzen duten eskualdeko eta nazioarteko erakundeak koadro batean.

8.1- Ea ezagutzen eta deskribatzen dituen Euskadiko eta Espainiako ezaugarri fisikoak, ekonomia jarduera nagusien guneak eta komunikabide ardatz handiak.

jakitea funtsezko zer balio eta printzipio dituzten oinarri, eta haren gabeziak kritiko izatea, arrazoituz. Helburua da ulertzea Europar Batasuna Europako herrien, estatuen eta eskualdeen harremanetarako eta parte-hartzerako eremua dela, eta beharrezkoa dela hobeto funtzionatzea.

8) Gaur egungo gizarteen arazoak zein diren jakitea, haien jatorri historiko-sozialak aztertzea, eta errealitateak eta egoerak aztertzea. Horren guztiaren helburua da haiekiko iritzi pertsonal kritikoa eta arrazoitua izatea, eta ekintza alternatibo eraginkorrak sustatzea eta abian jartzea, zenbait eskalatan, pertsonen arteko eta gizarte-taldeen arteko harremanak hobetzeko eta baliabide naturalak arduraz erabiltzeko.

9) Gizarte-fenomenoak zuzentzen dituzten prozesuak eta mekanismoak zein diren jakitea, eta gertaera sozialen, politikoen, ekonomikoen eta kulturalen arteko loturak aztertzea. Ezagutza hori gaur egungo gizarteen bilakaera azaltzen duten kausak askotarikoak direla ulertzeko oinarria izango da, eta Historiaren ikuspegi arrazoitua eta kritikoa edukitzeko. Azken helburua herritar moduan gizartea hobetzeko ekintzak abian jartzea izango da.

10) Gizarte-zientzien bereizgarri diren kontzeptuzko baliabideak, teknikak eta lan-prozedurak aplikatzea, eta arloko lexikoa erabiltzea zehatz eta zorrotz. Horrenbestez, lan monografiko txikiak eta ikerketak egingo dira, banaka zein taldeka, Euskal Herriaren, hurbileko eremuen eta munduaren jatorriaz eta bilakaera historikoaz ikertzeko.

9.1- Ea kontsultatzen duen lurralde-eremuetan dauden hainbat estatistika-institutuk jakitera ematen duten estatistika-informazioa: Eustat, EIN, Eurostat, Nazio Batuen Erakundea(NBE), etab.

10.1- Herrialde garatuak eta garatu bidean dauden herrialdeak alderatzeko, taldean lan bat osatzea. Lan horretan, datu fisikoak eta sozioekonomikoak deskribatuko dira; herrialdeen arteko desberdintasunen kausak azaltzen saiatu eta kausa horiek munduan gertatzen ari den globalizazio-prozesuarekin eta integrazio ekonomikoarekin lotuko dira.

10.2- Ea egungo zenbait gatazka sozioekonomiko ezagutzen dituen, interdependentzia ekonomikoa kontuan hartuta.

11.1- Ea ingurumena babesteko eta errespetatzeko jarrera ageri duen.

11.2- Ea ezagutzen dituen ingurumena babesteko inguruan dituen erakundeen eta kolektiboen proposamenak eta politikak.

11.3- Ea garrantzizkotzat jotzen dituen baliabide naturalak gizartearentzat, eta ulertzen duen baliabideak modu arrazionalen ustiatu behar direla.

11.4- Ea informazioa biltzeko iturri bat baino gehiago erabiltzen duen; gaur egun oro har dauden ingurumen-arazo nagusiak deskribatzen dituen; arazoaren eta haien ustezko kausen arteko lotura ezartzen duen.

12.1- Ea zuzen erabiltzen, irakurtzen eta interpretatzen dituen grafikoak, gaikako mapak, etab.

12.2- Ea behar duen informazioa lortzen duen eta erregistratzen duen; ea, horretarako, informazio-iturri bat baino gehiago erabiltzen duen.

12.3- Ea sistematikoki eta zorrotz hautatzen dituen informazio-iturriak gai jakin bat landu behar duenean.

13.1- Ea sentiberatasun-jarrerarik duen gaur egungo arazoaren aurrean; esate baterako, egoera kaskarrean bizi diren kolektiboekin, diskriminazio-egoerekin, ingurumenaren hondamendiarekin, etab.

13.2- Ea dakien ikusptuntu bat baino gehiago izateak balio handia duela, ea besteen iritzien aurrean enpatia jarreraz jokatzeko duen.

13.3- Ea lortutako datuak eta ondo egituratutako eskemak erabilia idazten dituen egin beharreko lanak.

11) Talde-lana egitea eta eztabaidetan eta debateetan parte hartzea jarrera konstruktiboa, irekia, arduratsua, kritikoa eta tolerantea izanda eta iritziak eta proposamenak behar bezala arrazoituta. Orobat, desadostasunak eta elkarrizketa gizakien arteko gatazkak eta gatazka sozialak konpontzeko bidea dela ikusi beharko dute, eta taldeko lan-teknikak landuko dira, bai sormenezko lorpen komun bat izateko, bai eta pertsonaren eta taldearen elkarrekintza nagusi den gizartean egoki txertatzeko ere.

12) Informazio geografikoa eta historikoa lortzea. Horretarako, ahozko informazioa, informazio grafikoa, ikono bidezkoa, estatistikoa eta kartografikoa planifikatu, aukeratu eta erlazionatu behar dute (informazioa hainbat iturritatik lortuko dute, komunikabideak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak barne). Informazio hori laburbildu egingo dute, eta lortutako emaitzak besteei modu antolatuan eta ulergarrian azaltzen jakin behar dute.

13) Estatu modernoaren sorreran izandako une garrantzitsuenak bereiztea, monarkia hispanikoaren eta Espainiako inperio kolonialaren ezaugarri nagusiak adieraztea aldi horretako testuinguru europarraren barruan.

13.4- Ea balioesten duen emakumezkoek ekonomikoki eta sozialki parte hartzea gizartearen arlo guztietan eta ekoizpen-prozesuaren arlo guztietan, eta diskriminazio mota guztiak gaitzesten dituen.

14.1- Ea dakien zeintzuk diren aurkikuntza geografikoen kausak eta ea lotzen dituen gero gertatutako ondorioekin, onak eta txarrak.

15.1- Ea kapaza den ardatz kronologiko batean, koiuntura positibo eta negatiboak gauzatzea, horretarako arrazoitu behar ditu etapa onak eta txarrak.

16.1- Ea ulertu eta transmititzen duen zergatik gertatu ziren erlijiozko zismak, eta ea bereganatzen dituen jarrera kritikoak gauza guztien aurrean.

17.1- Ea dakizkien zeintzuk diren arte errenazentistaren ezaugarriak eta arte-lanetan errekonozitzen dituen.

18.1- Ea ulertzen dituen aurkikuntza geografikoek izan zituen ondorioak eta prozesu horren bilakaeran zeintzuk ziren benetako protagonistak, onerako edo txarrerako.

18.2- Ea lortzen duen enpatia sentimendu bat indigenen egoerarekiko.

19.1- Ea kapaza den Europako mapan, sortutako herrialdeak kokatzea bere lekutan.

19.2- Ea ezberdintzen dituen arte Barrokoaren ezaugarriak eta sinboloak.

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje].

- **1. EBALUAZIOA**
 - 1.1 - Lurreko inguru fisikoa: Munduko, Europako, Espainiako
eta Euskal Herriko inguru fisiko eta politikoa. 6 ordu
 - 1.2 - Lehen sektorea 9 ordu
 - 1.3 - Meatzaritza, energia eta industria 7 ordu
 - 1.4 - Zerbitzuak 10 ordu

- **2. EBALUAZIOA**
 - 2.1 - Hiriak mundu globalaren erdigunea 9 ordu
 - 2.2 - Mundu ekonomia globalizatu bat 9 ordu
 - 2.3 - Garapenaren erronka 4 ordu
 - 2.4 - Ingurumen jasangarritasuna 7 ordu

- **3. EBALUAZIOA**
 - 3.1 - Aro Modernoa, aro berri bat 9 ordu
 - 3.2 - Pentsamolde berriak: Errenazimendua eta Erreforma 9 ordu
 - 3.3 - Espainiar inperioaren sorrera 9 ordu
 - 3.4 - Barrokoko Europa 5 ordu

ARAZO-EGOERA

ARAZOA

- **Aldaketa klimatikoa.**

- **Zergatik?: Kutsadura atmosferikoa**
 - Negutegi efektua**
 - Uraren eskasia eta kutsadura**
 - Deforestazioa eta desertizazioa**

- **Ondorioak: Temperaturaren igoera**
 - Poloen desagertzea**
 - Biodibertsitatearen galera**
 - Lurzoruaren degradazioa**
 - Uholdeak**

XEDEA

- **Kontzientzia berdearen sorkuntza, "garapen jasangarria" bultzatuz.**

PROZEDURA

- BBCren bideo bat ikusi: “90 hamarkadaren umeak”
- Bideoaren iruzkina egin, horretarako ezberdinu behar dira bideoan agertzen diren munduko alde ezberdinetako hamar umeen bizitzak eta etorkizuna. Bideoa, Rio de Janeiroko klimaren aldeko konferentziaren kontestuan lerrokatzen da.
- Harrez gero, zenbat konferentzia egon dira “aldaketa klimatikoa” saihestekoaren alde?
- Non eta ze ezaugarriak izan ditu bakoitzak?
- Taldeka egingo dute lana, binaka edo hirunaka gehien jota, eta Power Point erabiliko dute informazio guztia biltzeko.
- Lanaren azken puntuan, Bibliografia baino lehen, pentsatu beharko lituzke soluzio posibleak arazo honi buelta emateko.

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado desde una perspectiva inclusiva].

IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA

- Gai guztiei buruzko multimediazko sarrerak.
- Edukiak aurkeztu baino lehen inguruko kontzeptuak arakatuko dira
- Irakurketa ulergarria egiteko, hiztegi historiko, soziologiko eta artistiko egingo da.
- Ulermena eta sintesia lantzeko hainbat ekintza jorratuko dira, eta hori lortzeko azpimarraketak eta eskemak garrantzi handia hartuko dira.
- Ikasgai bereko prozeduraren ariketak landuko dira.
- Adinari egokitutako testuei buruzko iruzkinak egingo dira (egunkarietatik hartutak)
- Geografia grafikoei dagokionez, interpretazio jarduerak eta haien lanketa egingo dira.
- Gaien arabera, talde txikietan zein handiagoetan antolatuko da lan kooperatiboa. Ahaztu gabe, autonomiak eta lan pertsonalak ere.
- Debateak egingo dira.
- SITEAN: ariketak, PPT, bideoak eta bestelako materialak.
- Arbela digitala eta beste ikus-entzunezko teknikak ohikoak izango dira ikasgelan.
- Institutoko Hizkuntza Proiektua kontutan hartuko da, erabakitako konpetentziak bultzatzeko nahian. Irakurmena eta ahozkotatua autatu dira.

BALIABIDEAK

BALIABIDE ANALOGIKOAK

- Testu liburua: Geografia eta Historia. 3 DBH. SANTILLANA-ZUBIA
- Ariketa koadernoak
- Hiztegien kontsulta
- Mapa mutuak, Atlasak,...
- Liburutegiko liburu monografikoak.
- Aldizkarien eta egunkarien artikulak
- Kontzeptu-mapak, grafikoak,...
- Irteerak eta museo bisitak.

<p><u>BALIABIDE DIGITALAK</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Institutoko IKT baliabideak eta Google apps-ek eskainitako tresnak: drive, calendar, e-mailak, Siteak, classroom..., erabiliko dira. - SITEA: Gizarte dbh3. Irakasleak prestatutako material digitalak - INIKA: Ikasleen hutsegite eta noten kudeaketarako.
--

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portafolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p>
<ul style="list-style-type: none"> - Edukinak eta prozedurak ebaluatzeko, ebaluazio bakoitzean bi edo hiru azterketa egingo dira gaien arabera. - Ahozko frogak: Mapa mutu baten aurrean, leku zehatz batzuk kokatu behar dira - Idatzizko frogak: mapa mutuak osatu - Hiztegiak lantzeko lanak. - Banakako eta taldeko lanak. - Etxerako galderak koadernoan idatzitak. - Multiple choice izeneko galderak. - Ikasgelako koadernoak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Baloratuko da eduki minimoak eta oinarriko kontzeptuak menperatzea. - Idatzitako frogetan, adierazpen maila. - Prozedura geografikoak menperatzea. - Ideiak erlazionatzeko, kausak eta ondorioak ateratzeko gaitasuna. - Testuak ulertzeko gaitasuna. - Norbanakoaren iritzia garatzeko gaitasuna eta besteekiko errespetua. - Lanarekiko jarrera. - Ikasgelako behaketa, jarrera eta heldutasuna. <p><u>KALIFIKAZIO PORTZENTAIA</u></p> <p>Notaren ehunekoa: Froga objetiboak %70 eta eguneroko eta aldizkako lana, %30a.</p> <p>Azterketa: 7 puntu Lana: 3 puntu (koadernoak: 1 puntu) (lan zehatzak: 2 puntu)</p> <p>Oharra: Ezinbestekoa da, atal bi hauek gainditzea.</p>
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].</p> <p>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación].</p>	
<ul style="list-style-type: none"> - Ebaluazio bakoitza bukatzen denean, berreskurapen azterketa bat egongo da. Azterketan galdera teoriko zein praktikoak sartuko dira. Ebaluazioko lana egin ez duenak, aurkeztu behar du. 	

- Ez-ohiko berreskurapenetan kurtso osoko edukiak froga batean sartuko dira eta azterketa-eredua ohikoa bezalakoa izango da.
- Aurreko ikasturteko Gainditu gabeko berreskurapenak bi ardatz izango ditu:
 - 1- Irakasleak bidalitako lana burutu behar du, honetan eduki eta prozedura minimoak landuko dira, notaren %45a izango da.
 - 2- Azterketa bat egin beharko du egindako lanari buruzko galderei erantzuteko, notaren %45 izango da eta jarrera, %10, beraz gainditzeko lana zein azterketa egin behar ditu.
- Bi deialdi egongo dira, lehenengoa urtarrilean eta bigarrena apirilean. Ez badute gainditzen, ez ohiko azterketa egiteko aukera izango dute.

OHARRAK / OBSERVACIONES